Ordiziako Udala

2024SORD0007

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN ARAUBIDEAREN PEAN DAUDEN OBRAK IZAPIDETZEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ONARTZEKO PROZEDURAN KONTSULTA PUBLIKOA

Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 133. artikuluan ezartzen duenez, ordenantza proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratu behar da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak ukitu ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek euren ekarpenak egin ditzaten. **Hori horrela, Ordiziako udalerrian erantzukizunpeko adierazpenaren araubidearen pean dauden obrak izapidetzeko prozedura arautzen duen Ordenantza onartzeko prozesuan, aldez aurretiko kontsulta publiko hau egiten da.**

Modu honetan, eta arauzko proiektua egin aurretik, ukituak izan daitezkeen herritarrei eta antolakunderik ordezkagarrienei dei egiten zaie, etorkizuneko arau honen gain euren ekarpenak egin ditzaten.

Ekarpenak, alegazioak edota iradokizunak egin daitezke iragarkia udalaren web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean.

Hori horrela, ekarpenak hurrengo helbide elektronikoan egin daitezke: idazkaritza@ordizia.eus.

Jarraian, arauketa honekin konpondu nahi diren arazoak, berau onartzeko beharra eta egokitasuna, nahiz helburuak zein diren zehaztuko dira.

## *CONSULTA PÚBLICA EN EL PROCEDIMIENTO PARA LA APROBACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DEL PROCEDIMIENTO DE TRAMITACIÓN DE OBRAS SOMETIDAS AL RÉGIMEN DE DECLARACIÓN RESPONSABLE*

*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración de los proyectos de ordenanzas, debe substanciarse una consulta pública a través de la página web municipal, para recabar la opinión de los sujetos y de las asociaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma, por lo que en su cumplimiento, se lleva a cabo la **consulta previa en el procedimiento para la aprobación de la Ordenanza reguladora del procedimiento de tramitación de obras sometidas al régimen de declaración responsable en el municipio de Ordizia.***

*De este modo, y antes de la elaboración del proyecto normativo, se invita a la ciudadanía y a las organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma a expresar sus opiniones y hacer aportaciones sobre la necesidad de esta norma.*

*Pueden hacerse aportaciones, alegaciones y/o sugerencias, durante un plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente al de publicación del anuncio en la página web municipal.*

*A tal efecto podrán remitirse las aportaciones a la siguiente dirección de correo electrónico: idazkaritza@ordizia.eus.*

*A continuación, se describen los problemas que se pretender resolver con esta regulación, las razones de la necesidad y oportunidad de su aprobación, así como los objetivos que persigue.*

**ONARTZEAREN BEHARRA ETA**

***NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU***

**EGOKITASUNA**

Lizentziak ematea toki-administrazioak herritarren jardueran esku hartzeko funtsezko kasuetako bat da, administratuak jada duen eskubide bat deklaratzen duen prebentzio-kontroleko egintza gisa.

Udal honen iritziz, egokia da obra txikiko lizentzien eskaera, izapidetzea eta egikaritze-kontrola arautzea, kategoria berri bat ezarriz: obra txikiaren erantzukizunpeko adierazpena. Kategoria berri hori Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.5 artikuluan jasota dago, eta, egikaritzeari dagokionez, hirigintza-antolamenduan eragin txikia dutelako aldez aurretik interesdunak udalari erantzukizunpeko adierazpena egitea baino eskatzen ez duten obrei aplikatuko zaie.

***APROBACIÓN***

*La concesión de licencias es uno de los supuestos esenciales de intervención de la Administración local en la actividad de la ciudadanía, como acto de control preventivo que declara un derecho que ya tiene la persona administrada.*

*Este Ayuntamiento considera oportuno regular la solicitud, tramitación y control de ejecución de licencias de obra menor, estableciendo una nueva categoría, denominada declaración responsable de obra menor. Esta nueva categoría, recogida en el artículo 207.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se aplicará, en cuanto a su ejecución, a aquellas obras que por su mínima incidencia en el ordenamiento urbanístico sólo requieran previamente de la declaración responsable de la persona interesada al Ayuntamiento.*

**KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK ETA HELBURUA:**

Ordenantza honen bidez, beraz, Ordiziako Udalak hirigintza-baimenen izapideak arindu nahi ditu, herritarren itxarote-denborak eta administrazio-izapideak murriztuz. Erantzukizunpeko adierazpenarekin, herritarrek ez dute lizentzia lortu arte itxaron beharko, eta aurkeztu ondoren hasi ahal izango dituzte obrak. Horrela, gaur egun dauden itxaronaldiak desagertuko dira, eta obrak egiteko epeak bizkortu egingo dira.

Erantzukizunpeko adierazpenarekin, herritarrek ez dute lizentzia lortu arte itxaron beharko, eta aurkeztu ondoren hasi ahal izango dituzte obrak. Horrela, gaur egun dauden itxaronaldiak desagertuko dira, eta obrak egiteko epeak bizkortu egingo dira.

***PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONAR Y OBJETIVO DE LA NORMA:***

*Con esta ordenanza, el Ayuntamiento de Ordizia pretende agilizar la tramitación de las autorizaciones urbanísticas reduciendo los tiempos de espera y los trámites administrativos de la ciudadanía.*

*Con la declaración responsable, la ciudadanía no tendrá que esperar a la obtención de la licencia y podrá iniciar las obras con la presentación. Así desaparecerán los tiempos de espera existentes hoy en día, y se acelerarán los plazos de ejecución de las obras.*

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Ordiziako Udala

2024SORD0007

| | |
|---|---|
| **Sinatzailea**<br>Firmante | **Administrazio Orokorreko Teknikaria**<br>Irati Labaca Garmendia |
| | **Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:** / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet:<br>https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAAPES17.ESgp |